

BOTA 2025 ***BERTSOA!***

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

JUPER BERTSOA SARIA

Irabazlea

ASIER IBARGUREN

**Astea pasa da ta
berriz larunbata
sagardo pixkat eta
zenbait kubata
anbientea berotu
zaigu pixkanaka
hemendik aterako
gera balantzaka
dantza, zalaparta,
solasaldi, txapa
garraxi ta kanta
zirku baten planta
hemen animalirik
ez zaigu falta!**

Astea pasa da ta
berriz larunbata
sagardo pixhat eta
zenbait kubata
Ambienteak berotu
zaigu pixkanaka
hemendik aterako
gera balantzeak
dantza, zalaparta,
solasaldi, trapa
garraxi ta hanta
zirku baten planta
Hemen animalirik
ez zaigu falta!

Doinua: Bretoiarena



T. 902 300 010
www.juper.net

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

ESPERANTZA SARIA

Irabazlea

MADDALEN ARENAZA

ARAMENDIA

DOBER 
EUSKARA ELKARTEA

**Txirrita_esnatuko balitz
begiratz ingurua
hizketan hasi nahi baina
geratuko zen mutua
ahoa zabaldu_orduko
baietz esan: Hau zirkua!
Nolatan hainbeste neskaz
zipriztindua kantua
eskerrak daukagun orain
norantza begiratu
Maialen, Oihana, Eli,
elkarri_emanda eskua
eskerrik asko, bihotzez
bada zerbait aitortua
zuei_esker egunez egun
askeago da mundua**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

BIKOTEEN SARIA

Irabazlea

ODEI MUJIKA

IZAR AZPIROZ

DOBER 
EUSKARA ELKARTEA

**Ile rapatu , kanosa
bihotzez denak gazteak,
sagardoa edan eta
hitzez direnak askeak.
Isiltasunean ere
zenbait bagaude gordeak,
baina irri eta oihuak
datoz animoz beteak.
Ligatzeko malabare,
eta ehiztari trebeak
pailazo diren askotan
ai, konturatu gabeak!
Artista ugari datoz
eszenan paregabeak.
Sagardotegiak dira
zirkuko denon etxeak**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

MOROSOEN SARIA

Irabazlea

AITOR EIZAGIRRE

**Hau bai dala zirkua
ta txuleta duna
errima label eta
sagardo leuna
pailazo, akrobata
hori da jarduna
eskapista daukagu
pagatu bertzuna**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

ILUSTRATZAILE SARIA

Irabazlea

ASIER SALAZAR


**Nola doa mundua
dena da dirua
botere, fama, lehia
ta postureua
nik dena daukat eta
hori da nahikua
gladiadoreak bezala
ezpata jokua
besteak berdin zaizkit
hori da kontua**

BOTA BERTSOA!

XI. bertso-paper
lehiaketa txikia



- NOLA DOA MUNDUA
DENA DA DIRUA
BOTERE ^{FAMA} LEHIA ~~LEHIA~~
~~LEHIA~~ TA POSTUREUA
NIK DENA DAUKAT ETA
HORI DA NAHIKUA
GLADIADOREAK BEZELA
EZPATA JOKUA
BESTEAK BERDIN ZAIZKIT
HORI DA KONTUA



BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

POESIA SARIA

Irabazlea

MIRARI ALDEKOA

**Nola Zirku bilakatu da
gure jenteria
Nahiz ta jarrita ez euki
guk sudur gorria
maskara bataz tapauz
denon aurpegia
zaila da topatzea
gezur ta egia
saila zaitez bilatzen
txantxaren haria**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

ERREPIKATZAILE SARIA

Irabazlea

PERU MARTIARENA

**Bada jendea begiak dir-dir
ta sudurra gorritua
txorakeriak esaten eta
pailazoan bihurtuak
beste bat berriz funanbulista
kupel barruan sartua
badago zutik mantendu_ezinik
ekilibrista petua
denon artean osatu dugu
sagardotegi zirkua**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

ENTXUFATUEN SARIA

Irabazlea

TXIRULAKAÑAK

**Itxasburun gaude ta
ezin da kantatu
gure artean daude
lehoi, tigre, katu
animalin zirkoa
da Hernaniratu
gure herria ondo
zaindu ta tratatu**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

KALIGRAFIAREN SARIA

Irabazlea

AKELARRE (ANDREA)

**Zenbat hilabete egon garen,
sagardo on bat edateko
Pailazokeri giro honetan,
sagardo hau dastatzeko
Malabaristak zein trapezistak,
denak ditugu gustuko
Hurrengo urtean hala ere
hemen egongo gara berriro!**

BOTA BERTSOA!

*XI. bertso-paper
lehiaketa txikia*



AURTENGO GAIA:

Hau bai zirkua!



**DO
BE
RA**

EUSKARA
ELKARTEA



(Badira hiru aste)

Zenbat hilabete egn garen,
sagardo on bat edateko.

Pailazokeri giro honetan, sagardo
hau dastatzeko.

Nalabaristak zein trapezistak,
denak ditugu gustuko.

Hurrengo urtean hala ere,
hemen egongo gara berrir!

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

IRABAZLEAREN SARIA

Irabazlea

ANE BELOKI LOPEZ

**Galartzak eta kuadrilak
sagardo festa lehertzean
jende pila elkartzen da
Urumearen ertzean
sagardoz ta gintonikez
hainbat baso betetzean
zirkua ikus daiteke
herriko kale hezean
konporta gaitezen behintzat
ondokoaren etxean
sagardorik ez baitago
herririk egon ezean**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

ERREIBINDIKATIBO

SARIA

Irabazlea

ALEX BEKARTE

DOBER 
EUSKARA ELKARTEA

**Gizarte hontan bada
hamaika arazo
bertso apal batean
ezin dena jaso
bateko igurtzi ta
besteko eraso
reggaetonaren kulpa
ote da akaso
zirku honetan bada
nahikoa pailazo**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

ERASMUS SARIA

Irabazlea

OLATZ HIJARRUBIA

Sagardotegiko eguna
urtero egiten baita
Gartziategira egin deu
aurten ere gure buelta
Marianito ta zurito
gure dantza eta kanta
txotxetik txotxera eginik
denentzat zirko aparta
abesti ta kanta artean
sortu dugu zalaparta
bueltan nahi bagaituzue
denkontutxo bat behar da
Gasteizek elkartu zuna
hemen mantendu behar da
Hurrengo urterarte ekipo
hamar pailazo aparta

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

***GAIA EZ DU JARRAITU
BAINA BAKARRIK JOAN
DA ETXERA SARIA***

Irabazlea

AMAIA AGIRRE

San Balentinen egunez
hasi naiz bertso pentsatzen
ostiral iluntzea da
gu_hasi motorrak berotzen
mahaian eseri gara ta
txorixoa deu probatzen
txuleta jan ordurako
hasi garela betetzen
kupela ireki eta
basoa zaigu bustitzen
laguna hasi zaitela
txotxeruakin ligatzen
gaur etxera joango naiz
bakarrik bertso kantatzen

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

DOINU ORIGINALAREN

SARIA

Irabazlea

MIREN ATXONDO

DOBER 
EUSKARA ELKARTEA

**Sagardoaren esentzialistak
Hernaniarrak ta turistak
Hona ekarri gaitu instak
Bidera atera gara
Korrika Osigara
Auzoz auzo Tilo setara
Mozkorraren ekilibristak
Botearen eskapistak
Goizaldeko ilusionistak
Irten gara Atzietara
pixa egiten erre kara
Furgofarrara joango al gara?
Bat, trago bat, egin bat
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat
Bat eta batzuk gara
hona-hara
Sagardo bat, mundu bat!**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

PROFESIONALEN SARIA

Irabazlea

AINGERU OTXOTORENA

URALDE

**Asteazkenez Altzuetara
hemen bada nahiko arte
Larunbateatan autobus horiek
nahiko pailazo dakarte
kamareroek malabarekin
ze umore, ze aldarte
hamaika trago edan ondoren
edozein baita alkate
zirko gehiego dago Hernanin
sagardotegiz aparte**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

AGRESIBITATE SARIA

Irabazlea

AMAIA ETXEERRI

**Sagardotegira iritsi
ta hoi da zirkoa
Irrintzie_entzun beharrez
bua da ohikoa
Ez ote det edan bat
sagardo nahikoa
akatzekotan nao ni
jertse horikoa**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

INFILTRATU SARIA

Irabazlea

AITOR ZABALETA

Izan ongi etorriak
gizon ta emazkiak
zatar iritsi eta
edertu diren guztiak
sagardotegi honetan
ditugula mirariak
zaharrak gaztetzen dira
ta asetu egarriak
Oialumen zaudete ta
doinuak dantzagarriak
bikotea aurkitzeko
soilik ireki begiak
traketsak eta abilak
denek planak biribilak
beste inun baino hobiak

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

E-POSTA SARIA

Irabazlea

FELIX OLASAGASTI

**Zirku itxura da bai
herriak duena
kalean barrena
pailazoak aurrena
piztiak hurrena
ustez sagar-kulturan
libre dela dena
Ba “kultur” gau hauentzat
nik proposamena:
azeri-dantza egin
tabernaz taberna**

BOTA 2025 BERTSOA!

***XI. bertso-paper
lehiaketa txikia***

Kategoria

LIGOTEO SARIA

Irabazlea

IBAI RODRIGUEZ

**Zaila degu gaurkuan
guk jartzea gaia
Baina sagardoari
hartuaz usaia
eskertzeko heldu da
oraintxe garaia
eskerrik asko bihotzez
benetan Zelaia**

Li gatu uahi dweuak
ere dei derake.
